

2019ko HAUR DANBORRADA

2018ko azaroaren 9a

Gurasoak agur:

Gutun honen bidez, 2019ko haur danborradaren inguruan informazioa eskaini eta zuen seme-alabek parte har dezaten animatzera gatozkizue.

1. HAUR DANBORRADA KO PARTAIDEAK:

Lehen Hezkuntzako 1., 4. eta 5. mailako ikasleek dute danborradan parte hartzeko lehentasuna. Maila hauetako ikasleekin danborrada osatzen ez bada, 3. mailakoei zabalduko zaie aukera. Haur gehiegik izena emango balu berriz, 5. mailako ikasleek izango lukete lehentasuna. Hortaz, kasu horretan, 4. mailako ikasleen artean zozketa egingo litzateke.

Genero berdintasuna sustatzearren eta Donostiako Udalak danborradan ere legea gauzatu dadin emandako irizpideen arabera, orain arte neskek betetzen zituzten postuetan (kantinerak, banderaduna, urketariak) mutilak ere onartuko dira eta mutilak bakarrik betetzen zituzten postuetan (gastadoreak) neskek ere onartuko dira.

1. mailako artean, "gastadoreak" (7 neska/mutil) eta "kantinerak" (8 neska/mutil) hautatuko dira. Gastadore eta kantineren kopurua mugatua denez, izena ematen dutenen artean zozketa egingo da. Talde batean edo bestean izena eman ahal izango da, ez bietan.

Banderaduna, horretarako izena eman duten 5. mailako neska-mutilen artean zozketa bidez hautatuko da.

"Urketariz" jantzita joateko lehentasuna **5. mailako neska-mutilek** izango dute, eta izena eman dutenen artean zozketa bidez aukeratuko dira. Plaza kopurua izena eman duten haurrena baino handiagoa bada, aukera zabalduko zaie horretarako izena eman duten 4. mailako neska-mutilei. (Kontutan izan "urketari" jantziak gona eta buruko zapia daramala)

Sukaldariz jantzita joateko lehentasuna **5. mailako neska-mutilek** izango dute, eta izena eman dutenen artean zozketa bidez aukeratuko dira. Plaza kopurua izena eman duten haurrena baino handiagoa bada, aukera zabalduko zaie horretarako izena eman duten 4. mailako neska-mutilei.

4. eta 5. mailako gainontzeko neska-mutilak, danborrariz jantzita irtengo dira (5. mailakoak barrilak eta 4. mailakoak danborrak). 5. mailakoekin barril jole kopurua betetzen ez bada, zozketa bidez 4. mailako neska-mutil batzuk aukeratuko dira barrila jotzeko. 5. mailakoekin barril jole kopurua gainditzen bada, 5. mailako neska-mutil batzuk zozketa bidez danborra jotzeko aukeratuko dira.

2. IZENA EMATEKO EPEA:

Parte hartu nahi duzuenok honekin batera doan "izen-emate orria" **azaroaren 15a** baino lehen bete beharko duzue (**14a azken eguna**). Ondoren ikastolako kortxoan izena eman duzuenen zerrendak jarriko ditugu, haurrek nahi bezala izena emanda daudela ziurtatzeko aukera izan dezazuen. Aldaketak edo akatsak zuzentzeko aukera **azaroaren 19a** arte izango duzue. Azaroaren **23an zozketa** burutuko da Ategorrietako jangelan.

Aurreko urteetan bezala, zozketa era egokian burutu dela egiaztatzearen, 1., 4. eta 5. mailako **gelako ordezkariak** zozketan izango dira.

3. ENTSEGUAK:

Entseguak Hurren izango dira; **abenduaren 18an, urtarrilaren 7, 9, 11, 15 eta 17an**, arratsaldeko 18:15ean, eta urtarrilaren **13an** (igandean) goizeko 10:30ean. Aldaketarik balego entseguen inguruan hurrengo zirukularrean zehaztuko genuke. Urtarrilaren 17ko entseguan helduen danborradakoekin batera joko dugu, eta horregatik entsegua 18:30ean hasiko da eta besteak baino beranduxeago bukatu.

Kantinerak eta gastadoreak, hau da, 1. mailako haurrek, 3 entsegu egingo dituzte bakarrik. Bat lehenengo egunean, hau da, abenduaren 18an eta besteak urtarrilean, zehaztuko ditugu aurrerago.

4. **KUOTA:**

Partaide bakoitzak 22 € ordainduko ditu. Ordainketa non eta nola egin adierazten duen zirkularra aurrerago bidaliko zaizue.

5. **OHARRAK:**

Danborradan parte hartu ahal izateko nahitaezkoa da diru sarrera epe barruan egitea eta entsegu guztietara bertaratzea (1.mailakoak eta banderaduna izan ezik).

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, zuen seme-alabak danborradan ez ateratzeko erabakia hartu duela pentsatuko dugu, eta itxaron zerrendan dauden haurrei emango zaie aukera.

Eguraldi gorabeherak kontuan izanik, San Sebastian egunean Udalak haurren danborrada baimentzen badu, ikastolako danborrada aterako da. Euria dela eta, beharrezkoa bada, plastikoak banatuko ditugu.

Gurasoek, danborradan izena eman ondoren, edozein arrazoi dela eta, seme-alaba danborradan ez ateratzeko erabakia hartzen badute, batzordeari lehenbailehen adierazi beharko diote, itxaron zerrendan dauden umeei parte hartzeko aukera izan dezaten.

Haurren danborradari buruzko informazioa (historia, araudia, argazkiak...) ikastolako web orrian aurkitu daiteke.

Gurekin harremanetan jartzeko zuen esku dago ondorengo helbide elektronikoa:
haurrendanborrada@zurriolaikastola.net

DANBORRADA BATZORDEA

HAURREN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA

MAILA	INPRIMAKIA
LH 1	HAURREN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA - LH 1
LH 4	HAURREN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA - LH 4
LH 5	HAURREN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA - LH 5

TAMBORRADA INFANTIL 2019

9 de noviembre de 2018

Estimados padres / madres:

Mediante esta circular queremos informaros en relación a la Tamborrada Infantil 2019, y animaros a participar en ella.

1) PARTICIPANTES DE LA TAMBORRADA INFANTIL:

Podrán participar en la Tamborrada **los alumnos y alumnas de 1º, 4º y 5º de Educación Primaria**. Si la "Compañía" no se completa con esos cursos, se dará la posibilidad de participar también al alumnado de 3º. Si por el contrario, la inscripción superará el número de plazas, tendrán prioridad los de 5º, por lo que se realizará un sorteo entre los de 4º.

Con el objetivo de promover la igualdad de género y siguiendo las indicaciones que el Ayuntamiento ha dado para que la Ley se cumpla también en las tamborradadas, los niños podrán ocupar los puestos que hasta ahora sólo podían ocupar las niñas (abanderada, cantineras y aguadoras), y las niñas los que hasta ahora sólo podían ocupar los niños (gastadores).

Entre los alumnos y alumnas de 1º se elegirá a los "gastadores" (7 gastadores) y "cantineras" (8 cantineras). Al ser un número de plazas limitado, se realizará un sorteo entre los inscritos. Cada alumno o alumna sólo podrá inscribirse en uno de los sorteos, gastador o cantinera, nunca en los dos.

El o la abanderada se seleccionará mediante sorteo entre el alumnado de 5º curso que lo soliciten.

Los **niños y niñas de 5º** que deseen salir de "**aguadora**" tendrán preferencia a la hora de ocupar estos puestos y se elegirán por sorteo. Si el número de plazas excediera el de inscripciones, se completarían con el alumnado de 4º que lo hayan solicitado. (Tened en cuenta que el traje de "aguadora" lleva falda y pañuelo en la cabeza).

Los **niños y niñas de 5º** que deseen salir de "**cocinero/a**" tendrán preferencia a la hora de ocupar estos puestos y se elegirán por sorteo. Si el número de plazas excediera el de inscripciones, se completarían con los niños y niñas de 4º que lo hayan solicitado.

El resto de **los y las alumnas de 4º y 5º** saldrán vestidos de tamboreros/as (los de 4º tambores y los de 5º barriles). Si con los niños y niñas de 5º no se completara el número de plazas de barril, esos puestos se sortearán entre los de 4º. Si por el contrario, el número de niños y niñas de 5º excediera el número de plazas de barril, se sorteará quién deberá salir tocando el tambor.

2) PLAZO DE INSCRIPCIÓN:

Las y los interesados deberán cumplimentar "la hoja de inscripción" adjunta **antes del día 15 de noviembre (el día 14 será el último día)**. Después pondremos las listas en los corchos de la ikastola para que podáis verificar la correcta inscripción de vuestro hijo o hija. Cualquier modificación en las inscripciones deberéis notificárnosla antes del 19 de noviembre. **El sorteo será el día 23** en el comedor de Ategorrieta.

Como en años anteriores, **los padres y madres delegadas de clase** de 1º, 4º y 5º acudirán al sorteo para verificar que el mismo se realiza de forma adecuada.

3) ENSAYOS:

Los ensayos se celebrarán los **días 18 de diciembre, 7, 9, 11, 15 y 17 de enero**, a las 18:15 horas y el día **13 de enero** (domingo) a las 10:30 horas, todos ellos en Hurra. Si hubiese algún cambio ya os lo haremos saber. El 17 de Enero ensayaremos con los de la tamborrada de adultos, por lo que el ensayo empezará a las 18,30 y terminará un poco más tarde que el resto de días

Las cantineras y los gastadores, es decir, los niños y niñas de 1º de primaria, vendrán únicamente a tres ensayos, uno el día 18 de diciembre y los otros dos en enero, ya lo concretaremos más adelante.

4) CUOTA:

La cuota de inscripción es de 22 €. Más adelante se os mandará una circular con los datos necesarios para hacer el abono.

5) AVISOS:

Para participar en la tamborrada es necesario hacer el ingreso del dinero dentro del plazo y acudir a todos los ensayos. Si no se cumplen dichos requisitos pensaremos que no quieren participar en la tamborrada, y daremos la oportunidad a los niños y niñas de la lista de espera.

Considerando las inclemencias del tiempo de los últimos años, la comisión de la tamborrada ha decidido que si el día de San Sebastián el Ayuntamiento considera que la Tamborrada Infantil se puede celebrar, la tamborrada de la ikastola saldrá. La comisión repartirá plásticos para todos los participantes en el caso de que sea necesario.

Si los padres/madres de algún participante, por cualquier motivo (enfermedad u otros), consideran que su hijo o hijas no debe salir en la tamborrada, deberán avisar cuanto antes a los miembros de la comisión para que puedan participar los y las niñas que están en la lista de espera.

En la página web de la ikastola podéis encontrar información sobre la tamborrada infantil de nuestra ikastola (historia, normativa, fotos...)

Para poneros en contacto con nosotros tenéis disponible el siguiente correo electrónico:
haurrendanborrada@zurriolaikastola.net

COMISIÓN DE LA TAMBORRADA INFANTIL

INSCRIPCIÓN PARA PARTICIPAR EN LA TAMBORRADA INFANTIL

CURSO	FORMULARIO
1º EP	<u>INSCRIPCIÓN EN LA TAMBORRADA INFANTIL - 1º EP</u>
4º EP	<u>INSCRIPCIÓN EN LA TAMBORRADA INFANTIL – 4º EP</u>
5º EP	<u>INSCRIPCIÓN EN LA TAMBORRADA INFANTIL – 5º EP</u>